

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**117/2025 Foru Agindua, otsailaren 26koa. Aldi baterako izendatzea Nuria García Sáez de Vicuña Gasteizko Udaleko udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan, titularrak lanpostua benetan beteko ez duen hilabeteetan**

Gasteizko Udalak 2025eko otsailaren 12an jakinarazi du aldi baterako izendapen baten beharra duela, hilabete baino gehiagoko epean udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostuko titularra ordezkatzeko.

Horretarako, proposatzen du aldi baterako izendapena egitea Nuria García Sáez de Vicuñaren alde, korporazio horretako A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa dena.

Aldez aurretik, estaturako gaikuntza duen funtzionarioei lanpostua eskaini izana argitaratu da 2025eko otsailaren 3ko ALHAOn (13. zenbakia), eta ez da eskabiderik jaso horretarako eskainitako epean.

128/2018 Errege Dekretuaren 52.1 artikulua arabera, ezinezkoa bada lanpostua estaturako gaikuntza duen funtzionario batekin betetzea, toki korporazioek autonomia erkidegoei eskatu ahal izango diete beren funtzionarioetako bat izendatzeko, aldi baterako; funtzionario horrek prestakuntza tekniko egokia izan behar du, eta, ahal den guztietan, A1 azpitaldekoa edo unibertsitate tituluduna izan behar da. 5.000 biztanletik gorako toki korporazioetan A1 azpitaldeko karrerako funtzionario bat izan behar da betiere.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikuluan xedatutakoa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (25. artikulua) idatzita utzi zuen moduan, non toki korporazioetan aldi baterako langileak izendatzeko eskumen eremua zehazten baita.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betetz, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldi baterako izendatzea Nuria García Sáez de Vicuña (A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioa) Gasteizko Udaleko udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan, 2025eko otsailaren 12ko ondorioekin, titularrak lanpostura itzuli bitartean.

Bigarrena. Udalak Lurralde Orekaren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio titularra lanpostura noiz itzultzen den, espedientean jasota gera dadin.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Gasteizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Bosgarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakezu zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 26a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JAVIER GORBEÑA GARCÍA**